

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/031

Izenburua: BITARTEKOTZA, ARBITRAJE ETA ADISKIDETZE INSTITUTUAREN
PROBINTZIA ZUZENDARITZA

Datak: 1977-1989

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 466 instalazio unitate

Sortzailea: BITARTEKOTZA, ARBITRAJE ETA ADISKIDETZE INSTITUTUAREN
PROBINTZIA ZUZENDARITZA

Erakundearen historia:

Bitartekaritza, Arbitraje eta Adiskidetze Institutua urtarrilaren 26ko 5/1979 Legearen bidez sortu zen, Lan Ministerioari atxikitako erakunde autonomo gisa. Haren zeregina, batetik, honako hauek zaintzea zen: langileen sindikatuen eta elkarte profesionalen estatutuen gordailua, hauteskunde sindikalen akten gordailua, eta hitzarmenen eta bestelako akordio kolektiboaren gordailua. Bestetik, gordailututako dokumentazioari dagozkion ziurtagiriak egitearen inguruko zereginak zituen. Institutuaren egitura organikoak, apirilaren 27ko 998/1979 Errege Dekretuaren bidez onartuak, probintzia zuzendaritza bat sortu zuen, zeinaren titularra Institutuaren probintziako ordezkaria izanen baitzen, eta egoitza probintzia hiriburuetan eta lan magistratura zegoen herrietan izanen baitzuen. Enpresaburuek eta langileek auzitegi horien esku utz zitzaketen sor zitezkeen lan eztabaida guztiak, banakakoak zein kolektiboak. Nafarroan, 1979ko abenduaren 22ko Aginduaren bidez, Arbitraje Auzitegia sortu zen, eta jardunean egon zen harik eta apirilaren 8ko 530/1985 Errege Dekretuak, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa ezartzen duenak, departamentuko zenbait erakunde autonomo ezabatu zituen arte —besteak beste, Bitartekaritza Institutua—. Apirilaren 11ko 938/1986 Errege Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zizkion bitartekaritzaren, arbitrajearen eta adiskidetzearen arloko Estatuko zerbitzuak. Horren aitzinetik, tarte labur batean, Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza Probintzialak bere gain hartu zituen horri zegozkion eginkizunak.

Funtsaren antolamendua:

031.01 ADMINISTRAZIOA

- 031.01.01 Memoriak
- 031.01.02 Korrespondentzia
- 031.01.03 Langileen espedienteak
- 031.01.04 Kontabilitate arloko espedienteak

031.02 LAN BALDINTZEN ERREGULAZIOA

- 031.02.01 Erakunde profesionalen estatutuen gordailua
- 031.02.02 Hauteskunde sindikalen gordailua
- 031.02.03 Hitzarmenen eta akordio kolektiboaren gordailua
- 031.02.04 Korrespondentzia

031.03 ARBITRAJEA ETA ADISKIDETZEA

031.03.01 Banakako kontziliazioak
031.03.02 Gatazka kolektiboak
031.03.03 Ahalen eskuordetzea
031.03.04 Estatistika

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.